

**IRITZIA**  
Juan Luis  
Mugertza

**ERREPORTAIA**  
Euskara ikasten  
gurasoengandik

**GEHIGARRIA**  
TxikiBARREN

**BERBETAN**  
Edurne Korta,  
Suizako ikerketa  
laborategi batetik  
bueltan

# BARREN

1997ko urriaren 10a  
V. urtea - 209. zkia.

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A



## Euskararen transmisioa Herentziarik baliotsuena


"Gu sortu ginen enbor beretik sortuko dira besteak,  
borroka horretan iraun • o duten zuhaitz-aldaxka • azteak" Xabier Lete



JUBIL

NURRIA • AZAROA 97

KANPAINA



AIULTIOPTICAS

Paregabeko prezioak  
dauzkagu.  
Zatoz ikustera.



Abantaila ugari ordaintzerakoan:

- MULTIOPTICAS txariela. Oinirik gabe erosteko modurik errezena.
- 30, 60 edo 90 egunetara utclain dezakezu, inlatto gainkargarik gabe



Lor itzazu MULTIOPTIKASen "TRAVEL CLUB" programako puntuak.

ELGOIBAR: San Frantzisko, 30  
Tel: 74 03 59 Faxa: 74 06 16  
DEBA: Ostolaza, 7 Tel: 19 21 92

MULTIOPT1CAS

tzu,310PTIKA

### KONPARA EZAZU MATERIALEN KALITATEA

Mendaroko Udalaren  
alboko etxeak

Marmolezko  
portalak/Gineako  
egurrezko enpanelatua  
Gineako tarima

Abebay-zko zokaloak  
Sukalde, gela eta  
egongelan eskaiola

- > Eskilen eskubandak  
Gineako egurrezkoak
- > Antena parabolikoa
- > PVCzko pertsianak

0.1gogailua

Ilyalefazioa eta ur beroa  
txapazko berogailuekin

- > Roca etxeko komunak  
Isolamendu termikoa

**14.000.000 pta.tik aurrera**  
Etxeak laister eskuratzeko  
aukera  
(12 bakarrik geratzen dira)



PRO11011011IS  
N1101111.1.1111AS

MENDARO

## Promotora Inmobiliaria Mendaro

Tel: 75 51 68 (94) 491 23 19





JUAN LUIS MUGERTZA

Atal hau ez da BARRENen editoriala. Urtero 15 Iagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

# Lehenago eta oraingo kontuak

**S**arri askotan, konparaketak egiten saiatzen gara. Aspaldiko txirrindulariak ala gaurkoak, lehenago bertsolariak ala egungoak... Erantzuna erraza ez bada ere, beti egoten da pizuzko arrazoiak edota ustezkoak emango dituenik. - Ene ustez, rimaz eta neurritz Lasarte bezalakorik ez dok izan-. Ondoko Iagunak: - Ona zuan, baina Egaña ere ez dok atzean gelditzen-.

Txirrindularitza galdetuz gero, beste horrenbeste. Batzuek, Merxek bezalakorik ez dela izan dioten bitartean, besteek Indurain izan dela onena esango dute. Eta futbolaz gauza bera, batzuentzat Pel onena, besteentzat Ronaldo.

Baina noiz ligatzen zen gehiago galdetuz gero, zer erantzungo genuke? Askoren ustez, gaur aukera handiagoa dago lehen baino. Eskolatik hasita, neska-mutilen arteko harremanak zabalagoak direla esango lukete. Garai batenko tabuak: erroberari eragitea, kanpaia jotzea, ezkondu baino lehenagoko sexu-harremanak, pekatu zirenak, egun sasipekatuak direla begibistakoa da. Baina gaurko guztia ona ez den bezala, lehenago guztia txarra ez zen moduan, gauza hatzuk ere onak ziren.

Niri diskoteketako dantza lotua oso gustatzen zitzaidan: Oraiko, Pelus, Dantzari, Txitxarro... Erreskadan, Euskadi taldeko ekipokoe baina tropel handiagoa egiten genuen dantza eskatzeko. Baikorrenek, jasotako kalabazak kontatu egiten zituzten: -Orain arte I2-. Nire modukoak gezurretan aritzen ziren. - Zer ino duz? Oraindik etxuat eskatu-. Ordurako, dozena erditik gorako zakukada kalabaza aldean generaman. Dena den, Rayo Vallecanokoe baina moral handiagoa genuen, 7 eta 0 galtzen, baina arbitroari partidua luzatzeko eskatzen.

**"Niri, esat e baterako, diskoteketak o dantza lotua oso gustatze n zitzaidan"**

Horrelakoetan neska izatea gustatuko zitzaidakeen eurek egiten zutena egiteko: goitik behe-ra errebasoa ernan eta "ez" esan. Batzuek, kalabazaren zergatia aztertzen saiatzen ziren. Erantzuna betikoa: - Nekatuta nago eta ez dut gogorik dantzatzeko-. Buelta eman eta hantxe zegoen, gu baino guapoagoa zen horrekin pega-pega eginda.

Inoiz txirripaz baten batekin dantzatzuz gero, buruz ikasitako txuletaren detailerik ere ahaztu gabe, gure erretolikaz baliatuz txunditu nahian: - Nongoa zara? Zer egiten duzu? Zer izen duzu?- galdetzen genion. Urduri egondako egunetan trabatu egiten bazinen nahikoa aitzakia ederra zen neskarentzat esateko: -Banoa!

Horrelakoxea zen pelikularen lehenengo zatia. Bigarreanean, kontrarioa tanteatu eta gero arrimatzen saiatzen ginen, eta jarritako palanka malgua bazen, munduko pertsonarik zorionsuenak ginen. Askotan neskarekin igarotako unea baino politagoa lagunei kontatzea zen. Ehiztariek txoriez berba egiten dutenean baino gezur handiagoak esaten genituen.

Guk erbirik ez genuen ikusten baina bai fantasia. Zer pena egun holakorik ez izatea! Hala ere, dena ez zen ezti aparra. Lotua eta gero soltea, eta parean sortutako neska oso dantzaria bazen, Travolta gure ondoan harregarri gelditzen zen. Holakoak ziren lehenago ligeak.

Sarritan gogoratzen naiz garai hartako gaurko neska-mutilzaharrez edo bananduta zaudetenez. Oso gogorra izan behar txuletarik gabe ligatu behar izatea, ze gaur egungo musika mailukari hori dela eta, txuleta baino belarri zuloak esaltzeko guata behar da eta. Holako egoeran zaudeten guztioi onena opa dizuet eta... Zorte on, rokeroko zaharrak inoiz ez dira hiltzen etal







Nafarroa enparantza, 2  
20870 ELGOIBAR

11 74 41 12

Publizitatea:

Ir 74 37 04

Faxa: 74 37 04

ARGITARATZAILEA

Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA

Elgoibarko Udala

ZUZENDARIA

Ainhoa Lodoso

ERREDAKZIO KONTSEILUA

Andres Alberdi,

Rosa Agirregabiria, Mikel Kortabitarte

KAZETARIAK

Ainhoa Lodoso, Jasone Osoro

PUBLIZITATEA

Miren Moreno

MAKETATZAILEA

Mikel Cornejo

ADMINISTRATZAILEA

Amaia Manin

M. Angeles Ortuoste, Rata Alvarez

KOLABORATZAILEAK

Itzi Agirreazaldegia,

Gemma Agirregomezkorta, Itziar Ajuria,

Ion Arrieta, Agurtzane Arriola,

Edume Bilbao, M. Angeles Exposito,

Amaia Gorostiza, Juanito Gorostiza,

Ane Gui116, Jon Gurrutxaga,

Antton Iriondo, KOKOE,

Imanol Larrañaga, Javi Ledn,

Jokin Martinez, Juan Luis Mugerlza,

Ongarri Zine Kluba,

Pello Rubio, Julian Segundo, Ixidor Solupe,

Leire Urkidi, Ibar Urizar

Unai Villena eta Julen Zabaleta

BANAKETA ARDURADUNA

IMBI101Larrañaga

INPRIMATEGIA

Gertu Koop. E.

TIRADA

4.000 ale

LEGE GORDAILUA

99-1.038/92

ISSN

1133-021X

Elgoibarko Udalak, Eusko  
Tauraritzako Kultura  
Sailak eta Foru  
Aldundiak diruz  
lagundutako  
aldizkaria.



IEW fundazioa  
fundacin

LNDANOBAT  
MAQUINAS HEIRRAMIENTA

## nuternauta anonimoari erantzuna

L ehendabizi mila esker astekari ho-  
bitartez eskaini diguzun txalo-  
arengatik. Hala ere, eskutitz honen  
zergatia zure kritikari erantzutea da.

Jakingo duzun bezala, gure zeregin  
garrantzitsua Elgoibarren egiten den  
Nazioarteko Krosa antolatzea da. Urte-  
ak pasa ahala, gero eta zailagoa egiten  
zaigu eginkizun hau aurrera eramatea,  
batez ere diru kontuak direla medio.  
Honela, aurten Internet-en gure infor-  
mazioa jartzea eskaini ziguten, krosetan  
eta Elgoibarko betriari buruzko datu  
eta **argazkiekin**. Ideia interesgarria iru-  
ditu zitzaigun, publizitateko diru sarre-  
retarako balio handiko tresna baita In-  
temet-en web orria eta posta elektroni-  
koa edukitzea. Hau egiteko gure la-  
guntzaileen eskuzahaltasuna eta orde-  
nagailuaren aurrean ordu pila bat sartu  
behar izan ditugu, pezeta bat bera ere  
ordaindu gabe (gure aurrekontuak ezin  
baitu honelako gasturik jasan).

Honela, Internet-eko gure orrian  
**oraingoz** dena erdaraz egotearen  
arrazoi garrantzitsuenak hauek dira:

- Publizitatearen bezero potentzia-  
lei (kontsumo marka handiak, kirol  
markak, etab.) eta krosaren inguruan  
dabiltzan estamentuei (federazioak,  
prentsa espezializatua, etab.) infonna-  
zioa bereziki erdaraz eman behar zaie.

Denbora justuarekin gabiltza nahi  
ditugun gauza guztiak egiteko, eta in-  
formatikaren mundu honetako gure  
lan tresnak murriztzak direnez, dena  
pausoz pauso egitea beharrezkoa da.

Gure asmoa ahalik eta azkarren in-  
formazioa bat euskaraz eta bai ingelesez  
ere jartzea izan arren, oraingoz lortu du-  
guna Espainia mailan Internet-en infor-  
mazioa (historia, palmaresa eta beste  
datu interesgarri batzuk) duen lehenda-  
biziko krosa izatea eta Elgoibarko he-  
rriari buruzko hainbat datu egotea da.

Berriz ere eskerrak zure internauta  
bisitarentatik eta oraindik ikusi ez du-  
tenentzat hemen doakie gure web  
orriaren helbidea: [hup://www.sof-  
tlan.cornieross-muguerza](http://www.sof-tlan.cornieross-muguerza)

Ego-Toki Elkarteko  
Atletismo Batzordea

Lander Agirregomezkorta  
Arriaga

## Mendaroko Udalaren oharra

Mendaron argitaratzen den kili-  
BARREN gehigarria egiteko ez  
dago kolaboratzailearik. Ekainean  
deialdia egin zen eta inortxo ez  
zen aurkeztu. Abendura bitartean  
ez da kiliBARRENik kaleratuko  
nahiz eta BARREN astekaria hu-  
zoi guztietan banatuko den orain  
arte bezala. Urte amaierarako ko-  
laboratzailearik agertzen ez bada,  
kiliBARREN desagertzeko arri s-  
kua egon daiteke. Idazteko gaita-  
suna, gogoia eta ilusioa izatea  
nahikoa dira kolaboratzailea izate-  
teke. Anima zaitzete!

## Ondare artistikoa, interes oreillorrekoa

Goiza rre n jarri behar duten de-  
puradorari buruz alkatearen hitz-  
ak irakurri nituenean egunkarian,  
neure buruari galdetu nion nola izan  
zezakeen Udalak hain jarrera hipo-  
krita Elgoibarko ondare artistikoare-  
kin. Batzuetan artearen suspertzaile,  
udaletxe atzean jarritako "Katana-  
rra" arkuaren berreskurapenaren ka-  
suan adibidez, eta besteetan, Apraiz-  
ko baserri eta errotaren kasuan,  
hainbestearinoko interes eza eraku-  
tsiz. Udalak berak ez ote dio Dipu-  
tazioari depuradora non kokatu be-  
har duen esan, modu horretan lur  
sail industrialak babestuz?

Turismoa hainbeste bultzatu  
nahi duen Udal honek, lantegietan  
turistentzat bisita-orduak jarri behar  
ote ditu?

Oso ondo dago galtzear dauden  
artelanak berreskuratzen saiatzea,  
baina hobe da tente dauden bitartean  
zaintzea.

Azkenik, jakin dezala alkate jau-  
nak depuradora interes orokorrekoa  
bada dioen bezala, elgoibartar  
gehienontzat ere hala dela gure on-  
dare artistikoa.



• **Futbol zaletu** bat etorri zaigu BARREnera ondo-ko kexa hau azaltzera: "Haundiko partiduetara juten naiz eta **partidu hasieran** altabozez ekipuan alineaziva ematen dabe. **Baina berehala** altabdia itzaltzen dabe eta jokala-

**rixak aldatzen ditzue- nian ez gera enteratzen aldaketiaz.** Beste ekipo batzuen zelaixetan altaboza martxan eoten da eta atsedenaldixan musikia ipintzen dabe. Klubekoei hau dana kontuan hartze-ko eskatuko niueke".



## TXALOAK



• Joan den larunbatean **Eskalada Txapelketa ikusten egon zen zaletu batek** antolatzaileak eta partehartzaileak txalotu nahi ditu. "Oso **ondo iruditzen zait Elgoibarren gure Eskalada Txapelketa propioa izatea.** Gainera, asko poztu nintzen elgolbartar mordoska joan ginelako rokodromora txapelketa ikustera. **Zorionak antolatzaileel eta eskalatzailleel** eskaini ziguten ikuskizunarengatik".

# BAI, ESAN?



**Kristina Zuazubiskar**

**Udal Euskara Zerbitzuko teknikaria**

Aste honetako deia **Udal Euskara Zerbitzuko teknikaria** den **Kristina Zuazubiskarri** zuzendu diogu. Egunotan hizkuntza-transmisioari buruzko kanpaina martxan jarri du Euskara Zerbitzuak. Euskararen transmisioaren inguruko gora-beherak azaltzeko eskatu diogu oraingoan Kristinari.

- **Zein da gaur egungo gurasoen hizkuntz-perfila?** - Guraso euskaldunak, erdaldunak eta mistoak (bietako batek euskaraz hitz egiten duenean) egoteaz gain, motibazio aldetik ere ezberdintasunak nabari dira. Guraso batzuek euskararen erabilera bultzatzen badute ere, beste batzuek jarrera pasiboa dute. Gurasoen hizkuntz jokabidea erabakiorra da eta ezin da euskararen transmisioaren ardura eskolaren esku bakarrik utzi.

- **Zein bilakaera izan dute hizkuntza ereduek ikastetxeetan? Zein da gaur egun nagusia?**

- Orain dela 10 urte ikasleen %51 "D" ereduan ari zen ikasten. Beste %25a "A" ereduan eta beste %22a "B" ereduan. Gaur egun Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan "D" eredua da nagusi (%81). "A" eredua desagertu egin da.

- **Haurrekin lotutako jardueren garrantzia hizkuntza-transmisioan oso garrantzitsua da. Zein presentzia du euskarak esparru horietan?**

- Haurren denbora librearekin gero eta garrantzia handiagoa du eta batez ere, eskolaz kanpoko jarduerak. Arlo hauetan euskararen presentzia nahi baino urriagoa da. Hala eta guztiz ere, datozen urteotan euskararen erabilera dela eta, esparru horietan eragina nahi da.

# BELTZ


71Ierrzina

San Frantzisko, 38

**Cordon, Vilarchao, C.b. jeid**  
**DEKCIRAZIOA**

MOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK, SINTASOLA, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERTIKALAK, GOTELE ERROTULAZIOA, PINTURA OROKORRA.

San Roke, 7 behe. Tel. 74 28 74 - 74 05 70



# Euskararen soka eten ez dadin

*Astelehenean hasi zen Udalak antolatutako "Ahoz alzo, belauenez belau" izeneko kanpaina. Helburua, euskararen transmisioan gurasoen funtzioa bultzatzea eta inplikatzeara da, besteak beste. Izan ere, familiak eragin zuzena du seme-alaben hezkuntzan orohar eta hizkuntzan bereziki. Gaurkoan, gai hau landu nahi izan dugu eta horretarako hiru guraso tipologia ekarri ditugu gure artera: guraso euskaldunak, erdaldunak eta bikote mistoa, hau da, bat euskalduna eta bestea erdalduna. Ikus dezagun nola ematen den hizkuntz transmisioa kasu bakoitzean.*

## GURASO MISTOAK

Jabier Bilbatuak 45 urte ditu eta Maria Dolores Beristainek 41. Jaiotzez eibartarrak dira baina gaur egun Elgoibarren bizi dira. Zortzi serne-alaba dituzte, 2 urtekoa txikiena eta 15 urtekoa zaharrena. Jabierrek ez daki euskaraz baina M. Doloresentzat euskara da ama hizkuntza, "gurean betidanik hitzegin izan da euskaraz, giro euskaldunean jaio eta hazi nintzen". Jabierren kasuan, aldiz, "aitak bazekien euskaraz baina amonarekin bakarrik hitzegiten zuen. Ez zegoen gaur egun dagoen jarrera euskararekiko". Seme-alaba ezuztiak

"D" ereduari matrikulatuak daude, ikasgai guztiak euskaraz ematen dituzte. Izan ere, M. Doloresek esan digun bezala, "etxean denbora gehien niregotea naiz eta seme-alabekin euskara hutsean hitzegiten dut. Beraien ama hizkuntza euskara da nahiz eta, logikoki, gaztelera ere oso ondo defenditzen diren". Bilbatua-Beristainaren etxean jatorriak benetan xelebreak dira, "nahastea izaten da. Arnarekin euskaraz, aitarekin gaztelera, euren artean denetik...". Are gehiago, arnarekin esan digunez, "batzuetan errieta egin behar izaten diet adin batetik aurrera errazegi jotzen baitute gaztelera egitera. Hasieratik genekien gaztelera ikasteko ez zutela arazorik izango". Jahierrek hitz hatzuk bakarrik dakizki euskaraz, "asko ulertzen dut, hori bai eta seme-alabak ditugunetik izugarri ikasi dut baina hitz egitearena heste kontu bat da". Biek garbi dute zenbat eta hizkuntza gehiago jakin hobea dela serne-alabentzat, "baina euskara gailentzea nahi genuke. Ni euskalduna sentitzen naiz barru-barrutik eta berarekin gauza herria igorri nahi diet", azaldu digu M. Doloresek, Hizkuntzaren transmisioan familiak duen paperaz kontziente dira, "ez hizkuntza bakarrik haita fedea, baloreak, kultura, ohiturak...".





## GURASO ERDALDUNAK

**J**uan Jose Vegas-ek 40 urte ditu eta Aurora Alvarezek 36. Bi alaba dituzte: Laura, 9 urteko neskatila eta Amaia, 7 urtekoa. Juan Jose Salamanean jaio zen eta duela 25 urte etorri zen Elgoibarrera. Aurora eibartarra da baina gurasoak Galizia-koak ditu. Biek gaztelera bakarrik ikasi zuten umetan eta hori da, hain zuzen, beraien hizkuntza. Juan Josek esan digunez, "ni etorri nintzen garaian ez zen orain beste hitzegiten euskaraz eta ez zegoen ikasteko beharrik". Alabak "B" ereduan matrikulatuak daude, "Euskal Herrian egonik logikoena hemengo hizkuntza ezagutzea da". Aurora duela urte batzuk euskaltegian hasi zen, "alabekin euskaraz hitzegin nahi nuen eta hiru urtez ibili nintzen euskaltegian. Alabekin hitzegiten ahalegintzen nintzen baina alabei arraroa egiten zitzaizen nirekin euskaraz hitzegitea". Alabek erraztasun gehiago dute gaztelerez baina gramatikalki askoz ho-

beto defenditzen dira euskaraz, "matematika eta lenguaia ezik gainontzeko ikasgaiak euskaraz jasotzen dituzte eta idazteko orduan hobeto moldatzen dira gaztelerez baino". Etxean, "marrazki bizidunak euskaraz ikusi eta euskaraz idatzitako liburua ere sarri irakurtzen dituzte". Etorkezinean Laura eta Amaiak euskaraz hitzegitea nahiko lukete gurasoek, "gaur egun ere askotan esaten diegu euskaraz hitzегiteko. Arazoa gu gara, ez dakigulako euskaraz"



## GURASO EUSKALDUNAK

**A**maia Balzolak 35 urte ditu eta Iosu Iturbek 39. Bi seme-alaba dituzte: Eneko, 7 urtekoa eta Ane, hirukoa. Amaiak eta Iosuk jatorri euskalduna dute. Amaiak esan digunez, "ni baserrikua naiz eta umetatik beti bizi izan dot inguruan giro euskalduna. Iosuk ere etxian beti euskaraz ein izan dau baina bai bera eta bai ni eskolan eta lagunekin erderaz berba eitxera ohitsu izan gera". Eneko eta Ane "D" ereduan dahiltza, "Eneko oin hasi da erderaz piskat berba eitxen. Berantzat nobedadia da, inglesa bezela". San Pedro auzoan bizi dira. baserrian, "gurian girua euskalduna da, oso osua. Hala ere, kalera asko bajatzen gera, umiak kaliakin ere harremana eukitzia nahi dogu". Etorkezinean seme-alabek erderara joko duten beldurrik ez dute, "gure garaian askoz erdera gehi-

xo eitxen zan eta euskeria ez gendun galdu. Gaur egun zaila da hori pasatzia". Senar-emazteak batzutan erderara jotzen du, "eta Eneko semiak errieta eginez gu euskaldunak gerala eta euskeraz ein bihar doula esaten digu". Gainera, "seme-alabei esker iosu asko ari da soltatzen, lehen ez zakalako erreztasunik euskeraz berba eitxeko. Ni ere hitz berri asko ikasten ari naiz: sukanra, leihua bentania esan biharrian..."



"Alabari eskolako lanetan laguntzeko hasi nintzen euskara ikasten"



- Orain dela 3 urte hasi zinen euskara ikasten. Zergatik?

- Sei urteko alaba daukat. "D" ereduan matrikulatu genuen eta hasieratik erabaki nuen euskara ikastea berarek in hitzegin ahal izateko eta eskolako lanetan laguntzeko. Ez nuen nahi etxera etorri ela testuak ez ulertzeagatik alabari lagundu ezinik egotea.

- Senarra euskalduna al da?

- Bai. Alabak aitarekin euskaraz hitzegiten du eta nirekin normalean gaztelerez. Ahal dudana guztietan euskaraz hitzegin ahalegintzen naiz. Gertatzen dena da moziu egiten naizela. Elgoibartik kanpo gaudenean, Burgoson esate baterako, oso lasai hitzegiten diot alabari euskaraz, badakidalako inork ere ez duela ezer ulertzen baina hemen, inguruan jende euskalduna dagoenean, moztu egiten naiz, lotsa ematen dit hanka sartzeak.

- Etxean zein egoeratan erabiltzen duzt euskara?

Jostailuak jasotzeko esaten diodanean alabari, araria prest dagoela... Esaldi rnotzak izaten dira normalki. Poliki-poliki hasi behar da.

- 5. urratsean zaude, dagoeneko.

- Bai. Nik neuk ere ez dut sinesten! Oso gustura joaten naiz euskaltegira. Euskara ikasteaz gain etxetik ateratzeko aitzakia ona da, jende herria ezagutzen duzu... Nik edonor animatuko nuke euskara ikastera.

# ler uglizten diozu HBko Mahai Nazionalaren epaiketari?



**NATALIA G1L**

29 urte, etxeoandrea

Lehenengo bideoa ikusi beharko nuke, informatu eta gero, edukiaren arabera aztertu beharko litzateke epaiketa bidezkoa den ala ez.



**JESUSA BASAURI**

71 urte, etxeoandrea

Guk afusilamenduak bizi izan zitxugun etxian Francon garaian eta oin bestiak gauza berdina ein bihar al dabe? Benetan bihar dana pakia da, alde bixetatikan.



**JAVIER HERNANDO**

31 urte, ekonomista


Politika ez zait bat ere interesatzen eta ez dut ezertxo ulertzen. Beraz, ez naiz pertsona egokia inolako iritzirik emateko gai honen inguruan.



**JOSE JAVIER MARCOS**

31 urte, elektronikoa


Demokrazia batean bizi garenez eta adierazpen askatasuna dagoenez, edozein gairen inguruan pertsona batek daukan iritzia ematea bidezkoa da.



**JUAN BRUNO**

59 urte, jubilatua

Politikariak euren artean konpondu behar dituzte arazoak. Nire ustez, pertsona batek pentsatzen duena azal dezake beti ere esaten duena egia bada.



**NICETO GARATE**

74 urte, jubilatua

Neri lotsagarrixa beixantzen jatana da Gobernuak etara daban bidixua mundu guztian zabaltzeko. Garbi esanda, Gobernuak ere zer eitxen dau, ha?

**CE** **CRISTALERIA ELGOIBARRESA C. B.**  
 E,14401.4 4~-kva,k  
 0.L4 kv"m;t  
 Ea4m 4~44,4,k  
 Urasandi, 12 behea  
 Tel-Faxa: 74 04 89

**0**  
**0** < ,  
**ASESORIA ETA CONSULTING**  
 - Kontabilitatea - Lana - Fiskala - Aseguruak -  
 INBERTSIO PROIEKTUAK  
 Ibaite industrialdea, 5- 169 P.K. - Tel. 74 08 91 - ELGOIBAR

**Lanbroa**  
 Pedro Muguruza 5  
 Tel 74 08 06  
 20870 ELGOIBAR



## Mahai Nazionalaren epaiketa

110 ake alternatibaren bide-13 oa zabaltzeagatik HBko Euskal Herriko zuzendaritza politiko osoa epaitzera doaz Madrilen. Prozesu hau ez da anekdota bat, etorkizun politikoari buruzko gertaera erabakiorra baizik. Epaiketa honek ematen duenaren araber bide batetik edo bestetik etorriko dira gauzak.

Absoluzioa da epaiketa horri dagokion sententzia, oinarri juridikorik ez dagoelako, adierazpen askatasuna baita epaitzen den gauza bakarra. Hala ere, Estatu espainiarra auzia politizatzen ari da eta zigorraren aldeko iritziak plazaratzen ari dira komunikabideetan, demaseko presio politikoa eginez. Joan den astelehenean agerian geratu zenez Auzitegi Gorenak Espainiako Barne Ministroarekin lotura zuzena du.

Erabat antidemokratikoa den prozesu honetan ez da Mahai Nazionala bakarrik epaitzen, Euskal Herri osoa baizik. Epaiketa honekin gobernari espainiarrek euskal gizarteari ereduzko zigorra ezarri nahi diote, Espainiako agintariak konponbideen bila ibiltzeko Euskal Herriaren borondatea errespetatzeko asmorik ez dutela ikus dezagun. Azken finean Euskal Herriaren aurkako proiektua inposatzea baita Espainiaren helburua, eta horretarako, beharrezkoa da Herri Batasunaren zuzendaritza gartzelaratzeari.

Horregatik, bake alternatiba zabaltzea banda armatuarekin kolaboratzea dela agertu nahi dute. Bost axola zaie akusazioak erabat absurdoak izatea. Politikari eta komunikabideen lana izango da errealitatea behar bezala itxuraldatzea. Baina zer dio Madrilen hainbeste dardarizo sortarazi duen

### ALTERNATIBA DEMOKRATIKOAK?

1- Hego Euskal Herrian egiazko demokrazia eraikitzeko, gure Autodeterminazio eskubidea eta gure lurraldetasuna errekonozituko ditu Estatu espainiarrak eta, ondorioz, euskal herritarrok erabakitzen duguna errespetatzera konprometituko da.

2- Euskal gizarte osoaren inplikazio eta zuzeneko partehartzearen bitartez, nolako Euskal Herria nahi dugun erabakiko dugu. Eztabaida eta erabakitze prozesu hau euskal herritarroi soilik dagokigu eta, beraz, euskal gizarteak izango da hartu beharreko erabakien sujetu bakarra.

3- Prozesua benetan demokratikoa izan dadin, preso, errefuxiatu eta deportatuen eskuhartzea ahalbiderratuko duen amnistia eman go da.

4- Aipatutako edukinak akordio bidez lortu eta bermatzen direnean bere iharduera armatua geldituko duela adierazten du ETAk.

Baina euskal herritarrek bere erabakiak hartzerik entzun ere ez du egun nahi Estatu espainiarrak. Horregatik, demokrazia eta bakezko etorkizunean bizi nahi dugun guztiok geure erantzuna eman behar diogu epaiketa horri, gatazkaren konponbide politiko zibilizatu bati muturrean zaplastekoa ematea suposatzen duen epaiketa-fartsa horri.

Horrela, larunbatean, arratsaldeko 7etan Madalako parkean, eta igandean, Hispanitate egunean, Bilbon eguerdiko 12:00ean izango diren manifestazioetan parte har dezazuen animatu nahi zaituztegu.

**Elgoibarko  
Herri Batasuna**

**pkInm()71nA**

## ABENDUAREN 31ra ARTE

Internetera sarrera urtebeterako

- 64 kb.ko RDSIren bitarteko akzesoa
- 5 posta-kontu
- Aplikazio guztietarako sarrera: Internet, web, posta, ftp, news, etab.

PCrako RDSI txartel internoa

- Internetekin lotura RDSIren bidez
- Faxe
- Erantzungailu automatikoa
- Telefonía (Multimedia ordenagailua behar du)
- Software eta manuala gaztelaniaz
- 3 urteko garantia

Linea analogikoaren ordezkari RSDI linea jartzea

- RDSIri esker, linea arrunta gaurkotzea
- Aldi bereko bi komunikazio egiteko aukera
- 128 kb.ko Interneteko lotura (aukeran)

**Guzti-guztia 29.900 + BEZa.**

**Partikularrentzako konexioa.**

**Internet osoa:**

**1 2.950 (BEZa barne)**

**KONTRATA EZAZU BEREHALA**

L

Pedro Muguruza etorbidea, 13

Tel: 74 43 61. Faxe: 74 06 82

<http://www.softlan.com>

F-mail: [desarrollo@softlan.com](mailto:desarrollo@softlan.com)

[internet@softlan.com](mailto:internet@softlan.com)

• **Dendak larunhat arratsaldeetan irekita egongo dira**

Txankakua Merkatari Zerbitzuak bidalitako ohar batean esaten denez, udazken-neguko denboraldiaren aurrean dendak irekita egongo dira larunbat arratsaldean. Neurri honekin "bezeroari erosotasuna eskaini" nahi diote, "ordutegi zabala jarritz eta arreta handiagoa emanaz". Zapata-dendak, gazteentzako moda, oparidendak, gozotegiak, etab. dira larunbat arratsaldeetan irekiko dutenak eskaintza hobetze aldera.

• **Gurasoentzako euskara ikastaroak**

"Ahoz aho, belaunez belau" kanpainaren barruan Udal Euskara Zerbitzuak gurasoei zuzenduriko euskara ikastaroak antolatu ditu. Hiru maila ezberdin daude: euskalduntzen, lantzen eta sakontzen. Ikastaroak urriaren 27an hasi eta ekainaren 12ra arte luzatuko dira. Klaseak egunero izango dira eta ordutegi ezberdinak daude aukeran. Izen-emateak Udal Euskara Zerbitzuan egin daitezke.

• **Chileko 20 irakasle**

Igandean iritsiko dira Chileko 20 irakasle IMHra formazio ikastaroa egiteko. Astelehenean, hilak 13, ongi-etorria egingo zaie eguerdiko ordu batean Udaletxean, alkatearen eta erakunde kolaboratzaileen ordezkarien partaidetzarekin. Chileko gobernuak bi urte daramatza atzerrian irakasleak formatzeko bekak antolatzen eta CONTES erakunde arduratzen da formazioaz. Izan ere, Erreminta Makinaren Institutua CONTES erakundeko kidea da Arrasateko Eskola Politeknikoarekin eta Muskizko ikastetxe batekin batera.

**Euskararen transmisioari buruzko kanpaina**

Joan den astelehenean, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako Sailak eta Elgoibarko Udal Euskara Zerbitzuak antolatutako "Ahoz aho, belaunez belau" izeneko kanpainaren inaugurazioa izan zen Kultur Etxeko erakusgelan. Arantza Aurrekoetxea, Eusko Jaurlaitzarako Hizkuntz Politikarako Saileko kideak, "hizkuntzaren transmisio egokiak erabileran duen garrantzia" azpimarratu zuen. "Familian, eskolan, kirola egiten edo lagunarteko giroan euskaraz jarduteak duen garrantzia azpimarratu nahi du erakusketa ho-

nek". Erakusketa modu ludikoan antolatu da. Komiki eta joko interaktiboen bidez jolasean ibiltzeko aukera dute haurrek, euskaraz jardunez.

Kanpaina honen inguruan hainbat hitzaldi eta bestelako ekintza antolatu dira erakusketaren osagarri modura. Gurasoei zuzenduriko hitzaldiak izan dira astean zehar. Bi hitzaldi izan dira, bata euskaraz eta bestea gaztelaniaz. Euskara Zerbitzutik esan digutenez, "30 bat lagun joan dira hitzaldiotara". Honez gain, Euskara Zerbitzuak konnki lehiaketa ere antolatu du Eibar, Elgoibar eta Debako haurrentzat. "Euslcarakomik" lehiaketa izenez bataiatu dute eta 12 urtetik 16 urtera bitarteko haurrei dago zuzendua. Herriko irabazleentzat 20.000 pta.ko eta 25.000 pta.ko sariak egongo dira mailaren arabera eta bailarako onenak 45.000 pta.ko saria jasoko du. Lanak aurkezteko epea azaroaren 6ra arte luzatu da.



**Lerunen supermerkatua eraikitzeko proiekturik ez da aurkeztu oraindik**

Azken aldian Lerungo supermerkatuaren eraikuntza lanak urte amaieran hasiko direla esan bada ere, Gilleno Garate alkatearen esaneran, "oso zaila ikusten dot hori horrela izatia. Udaletxera ez da inongo proiekturik ailegau, eta proiektu batek esposizio publikuan egon bihar dau lelengo. Prozesua luze juten da normalian, horregatik ez dot uste urte amaieran obrarik hasiko danik". Supermerkatua eraikitzeko proiekturik ez dago, beraz. Unialco eta Udalaren arteko kontaktu bakarra iazko maiatzean izan zen. "Kontsulta bat ein ziguten, arau subsidiarioen arabera, Lerunen supermerkatu bat eraikitzea legala izango zan

ala ez jakiteko. Hori izan da dana". Udalaren papera auzi honetan baimena ematea bakarrik izango litzateke, "terrenuak pribauak dia eta".

Unialcok eraikiko lukeen supermerkatua tarnaina ertainekoa izango litzateke, 2.500 metro karratuko azalerakoa. Galeria komertzial bat eraikitzekotan,

"Udalak eskatuko lioke Unialcori, ahal den neurrian hor egongo liaken dendak Elgoibarkuak izatia". Supermerkatu areki n 50 lanpostu sortuko liratekeela diote Unialco-koek eta lanpostu horietarako elgoibartarrak kontratatzekeko komententzia ere azpimarratzen dute.







## Agur Errosario kaleko

Errosarioko Amabirjinaren omenezko jaiak amaitu dira eta urtero bezala, jai hauek duten kutsu herrikoa da azpimarragarriena. Antolatzaileen esanetan, "Amabirjinaren oinetan egiten den errezoa izaten da unerik ernozionateena". Joan den astelehen iluntzean izan zen otoitzaldia eta 200 bat lagun elkartu ziren ekitaldian. Otoitzaldia ez ezik, buruhandi eta erraldoiak, pilota partiduak, afari herrikoa eta erromeria ere izan dira aurtengo Errosarioko jaietan.

### • 7 autobus eta 400 lagun Kilometroak-era

Benetako estimazioa izaten dute Elgoibarko Izarrak Kilometroetara joateko prestatzen dituen autobusek. Aurten ere laster bete ziren 7 autobusak. Antolatzailleek esan bezala, "gazteak izan dira batez ere joan direnak, 16 eta 20 urte bitartekoak". Hil honen 18an Nafarroa Oinez izango denez, jai honetarako ere Elgoibarko Izarrak autobusak antolatu ditu. Ea beste 7 autobus betetzen diren!

### • Kultur Zerbitzurako lan-boltsa

Udal Kultur Zerbitzuak herritarrek osaturiko lan-boltsa sortzeko asmoa dauka kultura sailean sortzen diren lanak betetze aldera: buzoneoak, kartelak ipintzea, zama-lanak, etab. Lan-boltsa honetako partaide izateko adin nagusikoa, elgoibartarra izatea eta langabezian egotea eskatzen da. Interesa dutenek Kultur Etxean eman ditzakete datuak, goizeko 11etatik ordu batera bitartean.

### • Anselmo Salazar, Eusko Label-aren produktorea

Anselmo Salazar "Molrk, Zeleta baserriko produktoreak, Eusko Label-eko tomatearen eta Ibarako gindillaren aurkezpen ekitaldian parte hartu zuen. "Moli"k esan bezala, "erakusketarako prestatu ziren tomate bandeja guztiak Zeleta baserrian produzitutakoak ziren". Gaur egun Euskal Herrian saltzen den Eusko Labeleko tomatearen %75a Anselmok berak produzitutakoa da.

# 4K1POL ctIKfIPTtfl

Aretoko dantza, Salsa, Merenge eta Sevillana  
ikastaroak

Irakaslea: PILAR CABRERA SOLVEIRA

**Irakasle tituluduna** eta flamenkoa, sevillana, aretoko dantza, jazz dantza, gaur egungoa, klasikoa, aerobika, salsa eta merengean **aditua**

**Esperientzia eta kurrikulum handia:** Las Vegas (EEBB), Bartzelona, Tenerife, Sitges, Tele 5eko dantzaria, Els Comediants-ekin, Salouko galetan, Tarragonako Gamma 2an, 1. dantzaria Music-Hall Dancer-en, Pascal Eskolan, 'En forma' Kiroldegian, Danza Rosina Rossel eskolan, eta abar.

Klaseak goizez eta arratsaldez  
Talde Mugatuak



Informazioa

**IBAI KIROL ELKARTEA**  
Santa Ana, 46  
Tel: 740793 (17:30 - 21:30)

• **Adiminstrari lanposturako aurkezpen epea**

Udal Kirol Patronatuak jakinarazi nahi du adiminstrari lanposturako instantziak aurkezteko epea hil honen 15art amaitzen dela. Interesatuei izen-ematea lehenbailehen egitea eskatzen zaie.

• **Jubilazioari huruzko jardunaldiak**

Udal Ongizate Sailak jakinarazi duenez, Gizartekintza Sailak jubilatutako berri ditenei edo laster jubilauekotan daudener zuzendutako jardunaldiak antolatu ditu. 1997ko azken hiruhabeteotan izango dira jardunaldiak eta jubilazioaren inguruko gogoetak egiteko helbuntarela antolatu dira. Zer gertatuko den pentsloekin; testamentuaren gora-beherak eta antzerako gaiak landuko dira. Eibarren azaroaren 4, 5, 6, It eta 12an izango dira jardunaldiek. Izena ernateko 74 10 08 zenbakira dei daiteke.

**Kaleak garbitzeko plan pilotoa Elgoibarren egitea eskatu du Udalak**

*Deba Beheko Mankomunitatea herrietako kaleak garbitzeko plan pilotoa prestatzen ari da. Aipatu programaren izena "Herri garbi baten alde" da eta Gillermo Garate alkatearen asmoa plan pilotoa Elgoibarren egitea da.*



*Plan pilotoaren helburua "Herri garbi baten alde" programa martxan jarri aurretik egingo da.*

**M**ankomunitatearen helburua herri-tarrak kontzientziatzea eta kaleetako garbitasunari dagokionean parte hartzea da. Horretara zuzendurik egongo den kanpaina berri bat diseinatzen ari dira eta epe laburrean, herri konkretu batean plan-pilotoa martxan jarriko da. Hortik jasotako esperientziaren arabera eredu finkatu eta eskualde osora hedatuko litzateke.

Komunikazio eta sentsibilizazioan oinarritutako kanpaina izango da eta gauzak bide onetik ateratzen badira, epe er-

tainera gure herrietako kaleak garbiago egotea izango da helburua. Gillermo Garate alkateak Deba Beheko Mankomunitateko Iehendakari den Luis. A. Aranberriri helarazi dion eskutitz batean, "aipatu plan-pilotoa martxan jartzeko herria Elgoibar izatea" proposa iruditzen zaiola jalcinarazi dio. izan ere, Garatek azpimarratu duenez,

"Elgoibarrek era horretako programak aurrera eramateko ezaugarriak dauzka. Ez da Eibar edo Ermua bezain handia ez eta Mallabia eta Mendara bezain txikia. Esperientzia pilotoaren planteamenduak oso-osorik betetzen ditugula uste dut eta gure ezaugarrien arabera, herri egokiena gara aipatu plana probatu eta ondorioak ateratzeko".

**HBk PNV salatu zuen interes espekulatiboak bultzatuta jokatzeko duelako**

**P**ello Mendizabalek prentsurrekoan azaldu zuenez, Lerun-Txiki Morterika zonako ibaiaren mozketak eta ur-depuradoraren inguruko gaien aurrean azken egunotan irakurritako berrien arabera, "argi eta garbi ikusten da PNVren jarrera zein den. Betidanik interes espekulatiboak defendatu izan ditu eta, horregatik, informazioa izkutatzea izan da aurrera eramanez duten politika".

Mendizabalen iritziz, "PNV ibaiaren mozketaren aldekoa zen lur industrialak sortuko zuelako eta aukera zegoelako kontratista ezagunak, lagunak eta abar bertan parte hartzeko. Mozketaren gaia aurrera zihoan neurrian depuradorari kokagune desberdinak topatzen ibili zen Garate. Mozketarena atzera bota dela dirudi eta orain, Apraizen egingo da depuradora". HB depuradoraren alde agertu zen, "beharrezkoa da. Kokagunearen inguruko arazoa Garatek topatu beharko du, berak du Apraizeko errotarekin eta baserriarekin gertatuko den guztiaren ardura". Era berean, Pellok tripartittoa salatu zuen, "jarrera pasiboarekin Garate eta Oruek nahi dutena egiten jarraituko dutelako".



*HBko Pello Mendizabal zinegotzia asteazkenean eman zuen prentsurrekoan.*



# *Txiki* BARREN

LHko eta DBHko IKASLEEKIN EGINDAKO 37. GEHIGARRIA



**H**ilabete honetan BARRENEko argazki kamara San Bartolome Ikastolako 2 urteko haurrengana hurreratu da. Adin honetako umeei dagokien bezala, batera eta bestera

etengabe mugitzen ibili ziren baina azkenean, kostata izan arren, lortu genuen erretratu ateratzea.

Bi urte besterik ez dituzte baina gehienek etorkizunik oparoena lortzeko posibilitatea izango ahal dutel Bejondeiela guztiei!

## **7\****ed,tea*

Denbora laburrean lurrikara asko izan ziren herri batean eta gurasoek, izututa, senitartekoengana bidali zuten umetxo beste hiri batera


Bi egunetara telegrama bat hartu zuten: "haurra itzultzen dizuegu, bidali lurrikara".



## Jakitunen eskutik

### Igeriketa noiz hasita?

**G**uraso askok galdetzen dute noiz izan daitekeen igertan hasteko adinik egokiena. Hori erantzuteko asmoz, esan dezakegu, haurraren 3. hilabete inguruan kokatzen dela adin hori, garal horretan haurrak dituen ezaugarri berezi batzuk direfa eta. Hauetariko bat beldur eza izaten da; haurrak gestazio prozesu guztia amaren sabelean likido amiotikoz inguratua igarotzen du; hortaz, uretan murgiltzean, ur hori temperatura eta baldintza egokietan badago, oso gustura sentituko da. Beste ezaugarri bat adin horretan duten erreflexua da, glotisaren erreflexua deritzona, eta urarekin kontaktuan jartzean eztarria automatikoki ixtean oinarritzen dena, arnasketa bideetara uraren sarrera moztuz. Bi ezaugarri hauek elkartuta oso egoera egokia sortzen da haurra urarekin familiarizatzen joan dadin. Gaur egun Donostian dago ezaugarri hauek betetzen dituen Gipuzkoako Igeriketa Eskola bakarra.



**GORKA SASTRE**  
HEZKUNTZ A FISIKOAN  
LIZENTZIATUA

Aurrekoa ezinezkoa bada, 3-4 urte bitartekoa ere adin egokia izaten da. Hemen gainditu behar den zailtasunik handiena beldurra da, baina beldur hori gainditzea lortutakoan, jolasen bitartez oreka, arnasketa, uretan murgiltzea eta oinarritzko propulsihoa (antzeko adin ezin hobea da gero, sei urte inguru dituztenean eta beraien gorputzak koordinazio eta indar maila egokia lortzen dutenean, igeriketan dauden teknika desberdinak (krol, tximeleta, bizkarra eta bular estiloak) lantzen joateko.

Prozesu hau konplementatzeko Gipuzkoako Foru Aldundiak eskola kirolaren sustapen iharduere bitartez erotzen dituen igeriketa zikloak ditugu. Honek, ikastetxe bakoitzeko lehenengo mailatik laugarrenera dauden ikasle guztiak igeriketara bultzatzen ditu, urtero 20 eguneko ikastaro intentsiboa eginez. Sustapen iharduera honek Elgoibarren 300 haur inguru mugitzen ditu eta orain dela 6 urte jarri zen martxon.

## Zer iritzi daukazu

..... *ovvletladea*

## ri buruz?

*mke laude*

*kmAUta,*

*„ruie, jatxd 44,*

OIHANE OSORO, 9 urte



*Pina,ka4la imAho 'talo 4.et,44, ~~██████████~~\*ekU41, 1/1(4,Ke4 rew*

*leWumt,*

AITOR AZKUE, 12 urte.



*EPIIENE/K mliu) ale4,43,e41, 41.4,;1, Lowfs4,11, ItA,L,K1U4*

*444.44 eskattNK.*

*vril,, -*

XABIER LOPEZ, 7 urte







**VICIOR GALILISIC**  
11 urte

## Galde debalde

- 1- Ordenagailua erabiltzen ba al dakizu?
- 2- Zein lanbide izan nahi zenuke?
- 3- Nori emango zenioke musu bat?
- 4- Nor ezagutzeak egingo lizuke ilusioa?
- 5- Aladinori zein desio eskatuko zenioke?
- 6- 1Kustezina bazina, zer egingo zenuke?
- 7- Telebistako zein programa ez dizute lagatzen ikusten?
- 8- Goitizenik ba al daukazu?
- 9- Egutero gauza bera gosaltzen al duzu?



**NAGODUIL DIEGO**  
urte

1. Bai, eskolan lanak egiteko eta jolasteko erabiltzen dugu.
- 2- Olano bezala, txirrindularia.
- 3- Pamela Anderson-i.
- 4- Ronaldo.
- 5- Diru asko,
- 6- Jendeari bromak egingo nizkioke.
- 7- Denak lagatzen dizkirate ikusten.
- 8- "Correcaminos".
- 9- Ez, batzuetan yogurra, edo sagar bat edo ezer ere ez.

1. Zer da hori?
- 2- Irakaslea.
- 3- Nire anaia Aitorri.
- 4- Spice Girls
- 5- Video-Consola bat.
- 6- Golosina mordo bat jan.
- 7- Denak ikus ditzaket.
- 8- Ez.
- 9- Bai, esnea gailatekin edo zerealekin.

## Zer da...a/~41-

### 11AS1EL MIJRUA 7 ULIL



"Nire arazoa da ez didatela lagatzen beti txokoiatea jaten."

### MALVA CUTHAJUA CUTHAJEE



"Nire arazoa da ezin dudala egon nire amarekin eta aitarekin."

### 1VAIS SOLAS 13 ULTE



"Etxera joateko ordua jakiteko gurasoekin edukitzen ditudan bronkak."

### ASIGEL QUISITAISA 14 urte



"Azterketan gutxi ateratzea eta etxera heltzen zarenean dagoena da arazoa."

### GOLISA IDIELIC 9 urte



"Ez dakizunean umea zein eskolatan matrikulatu. Hori da arazoa."

### AIN110A VA7C117 S urte




"Larrialdi batean zaudenean sentitzen duzuna. Batzuetan erraz kanpontzen da baina beste batzuetan zaila izaten da."

ERANTZUNAK: 1. Josu Mujika; 2. Kontaiguzu gezur handi bat; 3. Matxinsaltoa, tipula eta tabakoa; 4. 42 kubo.

.op igo elle uonpunw  
op o!ol uouocloH


1, lo!eaci opizp uazigsnci  
!Jouonp uo4zow  
11, uopiasoci  
oo!ol uo!nosog -

•1.11.10 040 .11::»FO OSO  
inou uo!oiez  
14np un6a oijos o4a  
ouez! upelow



)1131111Z111113111511 4.

i,unp aijni oqui inquez 3.




„oupq ain89 uelose  
oionop lzpD6 onose  
lozno6 olojoy lo!oury  
ueismiale laloo  
unki G.IGN 1DriDioll  
naa „oind, :uo}olso  
inxo ualose loznos  
trazop ZG Joyq uosg,,

UDSG

apn 9

1VOYZIIVel



olep IJJ0.10 cuazio.[!s9  
o4a aJezineoze iU  
'110.1.10 ue!pn.ip onnze6  
'13.1911IDS "uei!Be  
o6e1.1 'uoruaz 'inp !sn!  
uaziosod >plo4euzn6  
alo)j 'uauagoan  
lop !srpp uoulleds,,

94An  
zirai intw

ohew niapia6 Jaz 2.

minq Dpuosped bp 10N 1.

ift1D111513 ZIOZO :11350d13010Cillea



*Edurne Kortak 25 urte bakarrik ditu baina bere kurrikulum-ean benetan gauza interesgarriak aurki daitezke. Izan ere, gazte elgoibartar honek Elikagaien Zientzia eta Teknologia ikasketak egin zituen eta gaur egun doktoregoan buru-belarri sartuta dago. Leioako Unibertsitateko Kimika-Analitikako departamentuan elikagaien pestizidei buruzko analisiari buruzko tesia egiten dago, ezta eta bere eratorrien arloan espezializatuz, batez ere. Duela bi urte Colombian izan zen beka bati esker eta aurtengo udan hiru hilabete pasatu ditu Suitzan ikerketa zentro batean bere gaia sakontzen.*

# EDURNE KORTA

## "Suitzako ikerketa laborategi batean egon naiz hiru hilabete"

— **Colombian elkartruke programa batean hartu zenuen parte.**

- Bai, beka bati esker Colombiako Unibertsitateko Laborategian egin nuen lan eta horrekin batera ikasleei hi-tzaldiak eman nizkien gure hezkuntza sistemari buruz. Han oraindik ez daukate doktorego programarik eta honen berri izan nahi zuten. Hiru hilabete pasa nituen.

— **Iristean beste beka bat eman zizuten, ez?**

- Bai, ikertzaile eta Unibertsitateko irakasleei zuzendutako formazio beka bat. Doktoregoa eitzeko lau urteko beka bat ematen dizute eta horrekin aukera daukazu urtero hiru hilabete juteko atzerrira zure tesia egiteko

— **Eta aurten Suitzan egon zara.**

Bai, Bernan. Han nere

inbestigazio berdina edo antzerakoa egiten ari dira eta nerretzat oso interesantea zan bertara jua eta haiekin lan eitzia.

— **Zein izan da esperientzia?**

- Gobernuaren laborategian egon naiz. Elikagaien munduko inbestigazioa egiten zuten batez ere esnekiekin. Ni erlezantza iker-tzen zuten departamentuan egon naiz nere tesiari buruzko ikerketak egiten.

— **Eta zer izan da landu duzuen?**

- Gaur egun erliei eragiten dioten gaixotasun bat dao Europan. Akaro batzuk dia eta erlauntza ez bada produkto kimikuekin behar bezala tratatzen bi urtian galdu ein laike. Akarizidak izeneko produkto kimikoak daude baina toxikuak dia eta hondakinak geratzen dia

bai ez-tian bai polenian... Nere lana izan da analisi metodo bat prestatzea sustantzia hauek ez-tixan eta beste produktuetan analizatzeko. Gero eta metodo prezisauak bihar dia eta horretan ibili naiz. Gero, beste alde batetik, gaixotasun horren aurkako produktu naturalak ikertzen daude.

— **Nola?**

Erliak nahiko intsektu interesantiak dira. Berez protekzio sistema bat dake eta laborategiak sistema hori ikertzen ibili dira ia hortik atera dezaketen produkto natural bat kontsumitzailearentzat bat ere kalterik ez dakana.

— **Suitzan oso aurreratuak al daude?**

- Ni laborategi zertifikatu batean egon naiz eta antolaketa aldetik oso ondo dago, jende gutxi... Leioan saturazio haundixaua dao. Baina bestela, teknologia aldetik antzera gaude, beharbada gauza batzuetan gu aurreratuagoak.

— **Hiru hilabete izan dira. Motza?**

- Ez, oso ondo aprobe-txau dot. Argizarixakin ere ein dot lan eta erlauntzak ikusi ditzut, zuzeneko kontaktua euki dot eta oso inportantia izan da. Gainera, argizarixan Amitraza izeneko pestizida deskonposatu eitzen dala eta azpi-produktuak daukala ikusi dou. Hori berrixa da eta aldizkari zientifikuetan artikulo bat argitaratu bihar dabe Suitzan.

— **Datorren urterako asmorik?**

Bai. Lanetik aparte herrialde eta kultura desberdina ezagutzen dozu eta Italiara jun nahi nuke.

### gESTEER ESANA

"Edurneri esker Euskal Herria gehiago ezagutzen dugu"  
STEFEN BOGDAMOV, Suizako Laborategiko arduraduna.





vvi.zcle  
Lelrrea



- Non bizi zara gaur egun?  
- Leioan bizi naiz baina Barakaldoko euskaltegian nago lanean.

Noiz egin zenuen alde Elgoibartik? - 18 urterekin Gasteizera Euskal Filologia ikastera joan nintzen. Ikasketak amaitu eta Barakaldon hasi nintzen lanean. Senarra ezagutu eta ezkondu egin ginen.

- Zer moduz moldatu zara herri borretan? - Oso ando. Heni lasaia da, Ieku askotako jendea bizi gara, Pasiara ederrak emateko leku aproposa da.

Herriminik bal? - Orain lehen baino gehiago. Gaztetan heritik irteteko gogoia izaten duzu. Egora berrietara moldatu beharrak asko erakusten dizu eta jendea ezagutzen da. Baina, orain, txikitako lagunekin eta familiarekin egoteko beharra askoz gehiago sentitzen dut etxean bakarrik nagoenean, batez ere. Sarritan joaten naiz Elgoibarrera. Eskerrak kotxearekin ordu erdian hor bertan nagoen!

VIAJES  
**31L3RI3 EXPZESS**

**bidai agentziak  
babestutako atala**

Foruen pfaza, 74 39 1 2

## Felix Murua Atristain (1909-1959)



- 1909ko otsailaren 2 lean jaio zen Errosario ka-lean.
- 7 anai-arreba izan ziren, bera gazteena.
- Eskola publikoetan ikasi ondoren, Eibarko Orbea bizikleten tailerrera joan zen lanera.
- Giharre handiko mutila egin zen gazte zela. 16 urterekin binakako esku pilotan, profesional modura jokatu zuen estreinakoz Ermuan, Santixao egunean. Hura sasoia Felixek orduan.
- 1936ko gerra hasi baino 5 hilabete lehenago ezkondu zen Purificacidn Gabilondorekin. 11 serne-aIaba eduki zituzten.
- Gerran, Bruneten "BataI1CM de trabajadores" deIakoan egon zen. Lemoan zauritu zuten. Bllbon abdlotu eta Iruñean espetxeratu zuten. Zaragozako Alemaniako Militarren tailerlean lanean egon zen. Une latz hauek pasa eta gero Elgoibarrera itzuli zen, "Forjas de Elgoibar" lantegira.
- Berriz ere esku pilotan hasi zen. Joko handia erakutsi zuen, orduko zaletuak oso gogoko zutena. Getariako Aranbururen aurka jokaturako bakarkako partiduak benetan ikusgarriak ziren.
- Geroago Sigman hasi zen lanean.
- Maila handia lortu zuen esku pilotan. Profesional ona izan zen, partidu ugari jokatu zituelarik. Begira zehaztasun hau: Felixek 42 urte handirekin laga zion profesional izateari. Bada hau merito handiko gauza.
- Geroago afizionatu bezala jarraitu zuen jokatzeko.
- Beti izan zen gizon gogorra, ausarta eta serioa.
- Askok gustatzen zitzaion perretxikoak batzea. Kuadrilan abestea, kirolak eta karta jokoan aritzea ere gogoko zuen.
- Sasoi ona zuelarik hil zen 1959ko abuztuaren 21ean 50 urterekin.

Juanito Gorostiza

**KAROBI  
TABERNA**

ELGOIBAR

Tel. 74 06 37  
San Frantzisko, 37

**- Kontabilitate**  
**- Lan**  
**- Fiskal**

**URKIDI**  
**AHOLKULARITZA**  
**1TT ERCOS ASEGUROAK**

Kalamua, 12  
ELGOIBAR  
Tel-Faxa:  
74 18 91

**OIERKI** IGOGAILUAK

Urrutira deitu gabe bertakook segituan konponduko dizugu igogailua

te (943) 20 35 15 **ABERIAK** (943) 20 35 15  
Bista Eder, 11 (sotanoa) 20600 EIBAR





ste honetako erretratua Julian Mujikak lagatakoa da.

Hernen agertzen direnak "Rapid" kuadrilakoak dira, Isidoro Retolazari 50 urte bete zituenean egin zioten omenaldian, 1967an, hain zuzen.


Eibarko Azitain jatetxean bazkari ederra egin zuten egun hori ospatze aldera. Begira

zenbat irribarre kuadrila honek. Hura bai sasoia.

Ezkerretik eskumara zutik daudenak, hauek dira: **Miguel Ubiria, Eugenio Mujika, Jose Antonio Alberdi, Agustin Zabaleta, Julian Mujika, Paco Muguruza eta Barrenetxea.**

Jarrita, **Carlos Ansola, Miguel Ajobita, Ladis Irdiguez, Isidoro Retolaza (t), Gregorio Arrese (t), Jose Arriola eta Karmel Ajuria (t).**

Idola  
Arrillaga  
PODOLOGA



CENTRO PODOLOGICO  
**IBILTZEN**  
ZENTRU PODOLOJIKOA

bitartirplaut,s11 Tel: 74 36 56

ERTIENTIFIFITZRILE BñT

hehar da

Rectificadora Universal Entre P  
mahinan lan effiteho.

Esperientziarehin.

71Tet: 74 20 68

[12:0fietatni 19,0Betara]



## 17 partehartzaile Elgoibarko i. Eskalada Txapelke/En

Joan den larunbatean Kiroldegiko rokodromoan izan zen Elgoibarko I. Eskalada Txapelketako irabazlea Joseba Elustondo izan zen nagusien mailan. Nesken atalean, nagusien mailan, Arantza Beristainek Rosa Alaminok baino puntuazio altuagoa lortu zuen, beraz, Arantza izan zen txapeladuna. Guztira 17 eskala-

tzaile elgoibartarrek hartu zuten parte. Kirol Patronatuko zuzendariaren eta Morkaikoko kideen iritziz, "balorazioa oso positiboa da. Partaidetza aldetik espero genuen erantzuna izan du eta ikusleak ere hurbildu ziren Kiroldegira. Goizean baino gehiago arraisaldean. Zehatz esateko, jarritako 100 eserlekuak bete egin ziren".



Txapelketan parte hartu zuten eskalatzaile guztiak antolatzaileekin batera.

| SAILKAPENAK                       |                    |
|-----------------------------------|--------------------|
| <b>HAURRAK (10 urte)</b>          |                    |
| 1-                                | Beflat Gutierrez   |
| 2-                                | Ion Ander Cernin   |
| <b>GAZTETXOAK (10-13 urte)</b>    |                    |
|                                   | Iffigo Lariz       |
| 2-                                | Gotzon Gutierrez   |
| 3-                                | Ion Zaldia         |
| <b>NESKAK (10-13 urte)</b>        |                    |
| 1-                                | Ainhoa Gonzalez    |
| 2-                                | Mireia Huidobro    |
| <b>NAGUSIAK (13 urtetik gora)</b> |                    |
| 1-                                | Joseba Elustondo   |
| 2-                                | Joseba Alvarez     |
| 3-                                | Humberto Fernandez |
| 4-                                | Ion Ibañez         |
| 5-                                | Ion Gasteain       |
| 6-                                | Igor Femridez      |
| 7-                                | Aitor Arriola      |
| 8-                                | Ekaitz Baskaran    |
| <b>NESKAK (13 urtetik gora)</b>   |                    |
| 1-                                | Arantza Beristain  |
| 2-                                | Rosa Alaminok      |

## Patxi Arriolak zonaldeko Ehiza Txapelketarako pasea lortu du

Joan den larunbatean, goizeko 9etatik eguerdiko ordu batera bitartean, Urnabitza inguruan jokatu zen Herriko Ehiza Xeheko Txapelketan Patxi Arriola nagusitu zen. Guztira 20 ehiztarik hartu zuten parte txapelketan. Patxi Arriolak eta bigaiten eta hirugarren postua lortu zutenek larunbatean, hilak 11, Elgetan jokatu den Deba Behoko txapelketan parte hartuko dute. Hurrengo fasera, fase probintzialera pasatu ahal izateko, lehenengo hiru postuetan sailkatu behar izango dute. Patxi esan bezala, "ahaleginak eingo ditxut probintzilian egoteko, baina nere espezialidadia oilagorrek diaz". Datorren hilean Gipuzkoako Oilagorren txapelketan parte hartuko du Patxi, nahiz eta iazko Espainiako txapeladuna izateagatik zuzenean sailkatzen den Espainiako txapelketarako. Ea aurten laugarren txapela lortzen duen.



Aitor Juaristi eta Patxi Arriola.

### ELGOIBARKO EHIZA XEHEKO TXAPELKETAKO SAILKAPENA

- 1- Patxi Arriola: 7 faisai
- 2- Aitor Juaristi: 6 faisai
- 3- Carlos Conde: 5 faisai

## Unceta, eskubaloike kadete neske patrozinatzailea

an Antolingo auzoan kokatuta dagoen Unceta lantegia El-13 goibar Kirol Elkarteko eskubaloike kadete nesken taldearen patrozinatzailea edo babeslea da. Duela pare bat asteburu, Uncetako arduradunak, Eskubaloi Elkarteko zuzendaritzako kideak eta eskubaloi taldeko kadete neskek (argazkian) Unceta lantegian elkartu ziren tailerra bisitatu, eta, babesleek eskainitako bazkariaren bueltan eguna ondo baino hobeto pasatzeko. Uncetako arduradunek eskainitako bazkariarekin kadete neskek saritu nahi izan dituzte, joan den denboraldian Kopako txapeladunak eta Ligako txapeladunordeak izan zirelako.





# Mintxetako harroblaren aurkezpena

**C**lub Deportivo Elkarteko Haundi, kadete taldea eta 2. erregionala osatzen duten jokalariei, entrenatzaile eta arduradunen berri eman ostean, hona hemen infantilen, jubeniletako bi taldeen, nesken eta Pedrusko taldeen aurkezpena.



**Neskak.** Atzean: Alherto Fernandez entrenatzailea, Vanessa Ortueta, Saioa Rodrigue, Itziar Gurrutxaga, Nerea Iriondo, Leire Rodrigue, Mireia Huidobro, Leire Zubiaurre, Ivaint Ortueta, M. Paz Berdonees, Miren Mujika eta Roberto Garefa entrenatzailea. Makurtuta: Ainhoa Alberdi, Irene Elorza, Anahel Rodrigue, Marta Diez, Laura Mujika, Maider Rejas, Amaia Barrenetxea eta Paeo Linares.



**Infantilak.** Atzean: Jose Luis Egaria entrenatzailea. David Morais, Mikel Lariz, Haritz Calvo, Asier Atrio, Asier Aranherri, Haritz Kruzelegi, Joseba Gonzfilez, Asier Elustonclo, Carlos joo, Iñigo Otero eta Andres Muñoz entrenatzailea. Makurtuta: Mikel Ruiz, Andoni Etxabe, Iker Martinez, Ivan Martinez, Gorka Panizo, Javier hoz, Asier Jauregi eta David Vilarchao.



**U. jubenila.** Atzean: Ivan Eizaurre, Jon Rodrigue, Asier Arenal, Asier Rodrigue, Aitor Eizaurre, Alain Ayala, Aitor Barrenetxea, Cristian Alvarez, Jon Zubiaurre, Ignacio Gonzalez eta Ibai Idoeta. Makurtuta: Ibai Etxabe, Abel Hernandez, Andoni Mujika, Asier Mujika, Iñigo Gurrutxaga, Alberto Perez-Cortes, Jon Gabilondo eta Ernesto Vilariño.



**Euskal Ligako jubenilak.** Atzean: Pedro Santiaago entrenatzailea. Javier Guallar, Eneko Silva, Ruhén Diez, Manu Ibarluzea, Iñaki Laskurain, Aitor Zubiaurre, Iker Polo, Aitor Juaristi eta Angel Silva entrenatzailea. Azpian: Ibon Etxaniz, Asier Arenas, Fran Huidobro, Manolo Ramos, Iñigo Araujo, Lorenzo Galeano, Roberto Cordn, Ander Barrenetxea eta Ignacio Laskurain. Alex Vigara falta da.



**Pedrusko.** Atzean: Mario Ortiz, Ciindido Romero, Osear Uri, Imanol Careedo, Iker Izaurre, Raul Careedo, David Conde, Angel Romero eta Agustín Unzueta. Makurtuta: Aitor Fernandez de Jaureari, Juan Romero, Koldo Laritain. Arkaitz Leiaristi, Garikoitz Muñoz, Luis Alberto Bellota, Antonio Guez, Jose Nogales eta Carlos Conde.

## KIROL ALBISTEAK

### • Patronatuak kalitateari buruzko inkesta egingo du

Udal Kirol Patronatuak Kiroldegiko instalazio, pertsonalaren tratua, garbitasuna, euskararen tratamendua eta beste aspektu batzuei buruzko inkesta martxan jarriko du datorren asteartetik, hilaren 14tik aurrera. Gestio Eskolako laugarren mailako ikasle batek egingo ditu kestatuak, Gestio Eskola Kalitatearen Euskal Fundazioa kidea baita, Kaliatean aditua den teknikoak sarreran egongo da eta ordu ezberdineetan doazen 14 urtetik gorako pertsonen zuzenduko die galdetegiak. Inkestaren helburua erabiltzaileen satisfazio maila neurtzea da. Emaitzen horien arabera balorazio bat egingo du gestioaren kalitatea hobetze aldera.

### 411 Kirol emaitiak eta agenda

#### Etnaltzak

##### ESKUBALOI

**Pneumax Elg. 8 - Puipo 26 (Kad. mul.)**  
**Tecnomeca Elg. 25 Pulpo 19 (Juh. mut.)**  
**Urola 26 - Elgoibar 19 (Seniorrak)**

##### FUTBOLA

**Aurrera Vittoria 1 - Haundi 0**  
**Eibartarrak 0 Elgoibar 7 (2. erreg.)**  
**Pedrusko 1 Hamaika Bat 1 (2. erreg.)**  
**Elgoibar 3 - Union Txiki 1 (Euskol Liga jub.)**  
**Elgoibar 3 - Tarautz 1 (I. juh.)**  
**Ostadar 0 - Elgoibar 6 (kad.)**  
**Elgoibar 5 Bergara 0 (inf.)**  
**Elgoibar 1 Añorga 1 (Neskak)**

#### Agenda

##### ESKUBALOI, KIROLDEGIAN

**Larenhata, 11**  
**16:00 Unceta Elg. - Legazpia (Kad. nes.)**  
**FUTBOLA, NONTKETAN**  
**Larunbata, 11**  
**12:00 Elgoibar Eibartarrak (Kad.)**  
**17:00 Haundi - Barakaldo**  
**Igandea, 12**  
**16:30 Elgoibar Gazteak (2. erreg.)**

RI  
2LZer egingo  
zenuke?

rbait zure ondora hurreratu eta musikaz hitzegiten hasten zaizu. Zuk, zeure kultura estimagarriarekin elkarriketa jarraituz, zure talde gustukoena aipatzen dizkiozu. Bera, aldiz, "Neskak mutilen kontra" defturiko talde batez hitzegiten hasten zaizu. Izen lelo horren atzean zer izkutatzen den galdetzen diozu. Chicago-koak direla esanez hasten da (erreferentzia bikaina). "Touch and Go" zigilupean argitaratua, eta horrek interesa handiagotzen dizu. Elkarriketa aurrera doa. Etiketak baloigabetuta daude, ez dago buelta ernaterik. Talde honek zainak irekitzen dizkizu errukirik gabe. Taupadak zorabioan nahasten dira melodiak erritmo itogarriekin jolastuz. "Girls Against Boys" en infernu partikularra. Dagoeneko jakinaren gainean zaude talde interesgarri batez hitzegiten ari zaizula. Bi baxu erabiltzen dituzte eta horrek irrika handiagotzen clizu. Zuzenean miresgarriak direla aipatzerik ez dago. Aukera zurea da. "House of GVSB" diskoan murgiltzeak ez dauka damurik.

Elgoibarko Izarrak 97ko  
azken txanpari ekin dio

*Irailean opor osteko aje-ak astindu osteau, euskararen aldeko elkarteak 97ko azken hiru hilabeteetan sartu da buru-belarri. Urtero bezala, aurten ere Aubixan izan dira gai ezberdinei buruzko gogoeta egiten. Elkartekoek esan digutenez, bi gai nagusi izan dituzte Aubixan: ARTEKALE kultur gunea eta elkarrealabertzaletasuna dikotomia.*



Joan den asteburuan Aubixan bildu ziren Elgoibarko Izarrako kideak.

apatu arratsaldean 23 lagun elkartu ziren ARTEKALE proiektuari buruz hausnarketa egiteko. Elkartekoek esan digutenez, "Elgoibarko bizitza soziokulturalean somatu den hutsunea betetzera dator Artekale kultur gunea". Artekale kalean kokatuko litzateke

genuena, hortik izena. Proiektua jendea aurkeztu ari dira une honetan eta horretan segitzea erabaki dute. Kooperatiba modura eratuta, 200 bazkide inguru lortzea da helburua. Oraingoz 50 lagun inplikazioa lortu dute.

Igande goizean, beniz,

Elgoibarko Izarrakoek euskara ez ezik, euskalduntasunaren gainontzeko baloreak ere bultzatu behar al dituen eztabaidatu zuten. Helburua ez zen erabaki finkoa hartzea, gaiaren bueltan iritzi ezberdinak entzun eta kontzientzia hartzea baizik.

Laiotz aldizkaria kalean eta Idaz  
Lehiaketan beste edizio bat martxan

**E**lgoibarko Izarra Kultur Elkarteak Idaz Lehiaketan beste edizio bati dagozkion oinarriak kaleratu ditu. Ohi bezala, bi atal izango ditu lehiaketak. Lehenengoa, Prosa Lehiaketa eta bigarrena "Etxegitia" Bertsopaper Lehiaketa. Bietan elgoibartarrek ez ezik Elgoibarren ikasten ari direnek ere har dezakete parte. Era berean, iazko Idaz Lehiaketetan saritutako lanak argitaratu ditu Elgoibarko Izarrak Laiotz aldikari literarioan. Urtean behin kaleratzen da eta bertan Idaz Lehiaketetako lanak argitaratzen dira. 1.250 ale banatu dira ikastetxe guztietako ikasleen artean. 1996ko prosa lehiaketan eta Bertsopaperetan irabazi zuten idazlanak eta idazleek kontatutako hainbat gora-behera irakurtzeko aukera izango da bertan.

## 1997ko sariak

Aurtengo sarituak zein izango diren San Anton jaietan jakingo dugu. Ohi bezala, hiru maila bereiztuko dira adinaren

arabera. Bertsoen lehiaketan "Elgoibarko Gaztetxea" izango da Iandu beharko den gaia. Lan guztiak Elgoibarko Izarra Kultur Elkartera bidali beharko dira abenduaren 12an beranduenez.





# Ark Felerrak

ALAZNE GONZALEZ

— **Marraztea** gustatzen zitzaizulako hasi zenituen Arte Ederrak. Bai. Betidanik gustau izan jata marraztia, eskulana eta holakuak eta nahiko garbi nakan Arte Ederrak eixia nahi nabala. Hala ere, gero diseino grafikotikan jun naiz. Zeozertan espezializatu bihar zera eta irteera gehixen diseinuari ikusten nionez, hori aukeratu naban.

— **Lehenengo urtean denetik** ikusten da, ez? - Bai, pintura, eskultura eta holakuak. Gai guztixak ikutzen ditxuzu piskat eta gero zuk erabakitzen dozu nundik nahi dozun jutia. Esperizalidate desberdinak daude: pintura, eskultura, diseino grafikua, audiobisualak...

— **Sistema berriarekin norberak nahi dituen ikasgaiak aukeratzten ditu.** Hori ona al da? - Bai eta ez. Bai, ze gustatzen jatzuzen gauzak ikasteko aukeria ematen dizue. Baina arrisku bat dao. Ez bazera espezialidate batetik juten, azkenian **danetik** pis-

kat bakarrik dakizu. Hobe da gauza konkretu baten zentratzia eta hortik bideratzia.

**Diseinu** gratlkoan ordenagailua sartzen da. - Bai eta ez. Guri erakusten digutenaren arabera, ordenadoria beste instrumento bat gehixo da, papelak, guraizak edo marguak bezela. Prozesu luze baten azkenengo fasia da. Ordenadoria gelan ez dou ixa erabiltzen. Gainera, eskuz eindako gauzek beti dake zeozer espeziala.

— **Arte Ederrak ikasketa** errazak omen dira. - Hori esaten dau jendiak baina nik ez dot uste egixa danik. Igual ez da asko ikasi bihar eta alde horretatik ondo dao baina lan asko ein bihar dia. Klase gehixenak praktikuak dia eta beti bialtzen dizue gauza berrixak eitxeko.

— **Azterketak?** - Urtian zihar bialtzen dizkizuen lanak eixen baditxuzu normalian ez da azterketarik egoten.

- **Eta lanak baloratzea** ez al da oso subjetihoa? - Irakasliak lanan prozesu guztixa jarraitzen dau, hasieratik amaitxu arte, zer esan nahi izan dozun horrekin... Eta horren arabera jartzen dabe notia.

— **Zuri eskultura gustatzen** zaizu batez ere, ez? Bai. Batez ere burdina eta holako materialeekin lan eixia asko gustatzen jata baina diseinuakin hasi nitzanian piskat baztertu ein naban. Ahal doten guztietan lantzen dot baina oso gitxitan dakat denboria.

— **Gustura Arte Ederrak hartu zenituelako?** - Oso gustura. Batez ere ideiak sortzen erakusten dizue, irudimena lantzen. Eta hori oso inportantia da. Hori bai, benetan gustau bihar jatzu ze bestela nahiko gogorra eixen da.

— **Eta etorkizunera begira?** Batek daki! Printzipioz diseino grafikualc bastante aukera dakala ematen dau. Oin beka bat eman die ETBrako grafismo arluan lan eitxeko eta urtarrilian Erasmus-ekin Parisera nixe hiru hilabeterako. Gero, ikusiko dou!



## BERTSITAT ATZEN DEN

- Complutense de Madrid (5)
- Bartzelona (5)
- Castilla La Mancha (5,01)
- Granada (5, 01)
- La Laguna, Santa Cruz de Tenerife (5)
- EHU (6,07)
- Politknica de Valencia (6,1)
- Salamanca (-)
- Sevilla (5)
- Vigo (-)

LOGSE batxilergo berriko adar guztietatik joan daiteke Arteetako adarra jarraitzen duten bitartean.

(derrigorrezkoak) eta kreditu kopurua

### 1. ZIKLOA

- Artearen Historia eta teoria (9)
- Bolumena (24)
- Forma eta errepresentazioa (9)
- Irudi teknologikoa (9)
- Irudigintza (30)
- Kolorea (24)

### 2. zikloa

- Ideia. kontzeptua eta prozesua arte sormenean (18)
- Metodologia, mintzairak eta teknikak arte-lanaren sormenean eta bere kontserbazioan (36)

Margolaria, errestratuzailea, eskultorea, diseinatzailea, marrazki irakaslea, arte kritikaria, dekoratzailea, delineantea, ilustratzaile grafikoa eta abar.



## INTERESEKO TELEFONOAK

### OSASUNA

#### Anbulategia:

|                            |        |
|----------------------------|--------|
| Larrialdiak .....          | 461111 |
| Txanda hartzeko .....      | 743354 |
| P4anning-a .....           | 742950 |
| Alkoholike Anonimeak ..... | 740385 |
| D.Y.A (anbulantzia) .....  | 464622 |
| Gurutze Gorria .....       | 743864 |
| Mendaroko Ospitalea ..     | 756264 |
| Odo! Emailak .....         | 743936 |

### GARRAIOAK

|                       |              |
|-----------------------|--------------|
| Eusko Trenbleak ..... | 740442       |
| PESA (Eibar) .....    | 902 10 12 10 |
| Taxi gertokia .....   | 740898       |

### UDALA

|                             |        |
|-----------------------------|--------|
| Euskara Zerbitzua .....     | 744366 |
| Udal Kirol Patronatua ..... | 744415 |
| Kultura Zerbitzua .....     | 742158 |
| Mendaroko Udala ..          | 756100 |
| Ongizate zerbitzua ..       | 741008 |
| Udaletxea .....             | 741050 |
| Udaltzaingoa .....          | 741394 |

### BESTELAKOAK

|                         |        |
|-------------------------|--------|
| Elgoibarko izarra ..... | 741626 |
| Kiroldegia .....        | 744415 |
| Kontsumo Buiegua ..     | 743088 |
| Liburutegia .....       | 743525 |
| Musika Eskola .....     | 742145 |
| Mintxeta .....          | 744315 |
| Parrokia .....          | 740842 |
| Postetxea .....         | 741547 |

### HIRUGARREN ADINA

|                       |        |
|-----------------------|--------|
| San Lazaro Egoitza .. | 740296 |
| Zaharren Biltokia ..  | 740526 |

### IKASTETXEAK

|                        |          |
|------------------------|----------|
| Haur Eskola .....      | 74 21 41 |
| Herri Eskola .....     | 74 08 79 |
| LM H .....             | 74 41 32 |
| Herri Institutua       |          |
| Arreitu rre .....      | 74 02 67 |
| Ezenarro (Meka) ..     | 74 44 80 |
| I kastola .....        | 74 44 41 |
| L.H.I. ....            | 74 44 80 |
| Pilar Ikastetxea ..... | 74 13 31 |

### KOMUNIKABIDEAK

|                       |          |
|-----------------------|----------|
| BARREN .....          | 74 41 12 |
| El Diario Vasco ..... | 74 40 73 |
| El Correo Español ..  | 74 10 82 |
| Egin .....            | 108421   |
| Zazpiki irratia ..... | 74 34 74 |

## 10 ostirala

22:30 ANTZERKIA  
"Chico's Mambo Show"  
Antzezlanak: "Barcelona,  
Pads, Caracas"  
Herriko Antzokian

## 11 larunbata

12:00 ZAZPIKIren  
BILERA  
Ganbaran

19:00  
MANIFESTAZIOA  
Irteera Madalatik  
Antolatzailea:  
Elgoibarko HB

19:30-22:15 ZINEA  
"Mentiroso compulsivo"  
22:00 EHUN KILO  
TALDEAREN AZKEN  
KONTZERTUA  
Gaztetxean

## 12 igandea

11:30 PILAR  
IKASTETXEko JAlA  
Meza eta luntxa  
Ikastetxeko patioan

16:30-19:30-22:15  
ZINEA  
"Mentiroso compulsivo"

## 1 asteleena

13:00 TXILEko  
IRAKASLEEI ONGI-  
ETORRIA  
Udaletxean

22:15 ZINEA  
"Mentiroso compulsivo"

## 15 asteazkena

19:00 ELKARTEEN  
BILERA  
GAZTETXEAN  
Antolatzailea: Gazte  
Asanblada

## 17 ostirala

21:30 ITXAROPENA  
ABESBATZAREN V.  
URTEURRENEKO  
KONTZERTUA  
Plaza Hnadian

22:15 ZINEA  
"El mundo perdido"

# 11



# A

Zuzendaria: Tom Shadyac  
Antzeleak: Jim Carrey, Maura Tierney, Justin Cooper.

• R • • al • • IE • • RI • • • • • 111 R •

### Mentiroso compulsivo

Fletcher Reede (Jim Carrey) abokatu trebe eta ahoberoa da. Epaitegietan gezurretan ibiltzea gauzarik naturalena da. Zerbait inpultsiboa da. Epaitegian ez ezik, familiakoen artean ere gezurretan aritzea oso normala da. Semeak denbora gutxi pasatzen duela berarekin esaten dio aitari eta desio bat eskatuko du bere urtegunean: aitak gezurrik ez dezala esan.

• • • • • 111 • • • • • 11 • • • • • 111 •



• **Ehun Kilo musika taldearen azken kontzertua**

Joan den astean BARRENen iragarri genuen bezala, Ehun Kilo musika talde elgoibartarrak agur esan digu. Taldea desegitera doa eta despedida modura Elgoibarko Gaztetxean azken kontzertua emango dute, bihar, larunbata, hilak 11, gaueko 22:00etatik aurrera. Agurreko kontzertua luzea izango da, bi ordu inguru iraungo ditu.



• **Anizkeria Herriko Antzokian hilaren 10ean**

Gaur, hilak 10, "Chico's Mambo Show" antzeztaldea "Barcelona Paris Caracas" antzezlana eskainiko du Herriko Antzokian gaueko 22:30etan. Cabaret erako antzezlana da. Ez dauka zerikusirik "Drag Queen" delakoekin, nahiz eta transformismoan oinarritutako ikuskizun bisual eta ikusgarria izan. Barrea eragiten duten pertsonaia parodiatu askok osatzen dute antzezlana. Antzezlana musikal honek hiru sari jaso ditu gaur arte. Sarrera 500 pta.koa da eta Gazte Txartelarekin 250 pta.



• **Natarroa Oinez 97rako autobusak**

Elgoibarko Izarrak Taffa-Ian igadnean, hilak 19, izango den Nafarroa 01-nez jairako autobusak antolatu ditu. Izena emateko 74 16 26ra deitu.

• **Parrokiko ohiko meza Pilar ikastetxeko patioan izango da**

Pilar Amabirjinaren egunean, hilak 12, ikastetxeko jaia ospatuko du Pilar ikastetxeak. Goizeko 11:30etan Parrokian egin ohi den meza Pilar ikastetxeko patioan izango da. Eguerdiko 12:30etan Itxaropena abesbatzak kantatu egingo du eta eguerdiko ordu batean, EskoIako Gurasoen B atzordeak luntxa eskainiko du.

• **Gazte Asanbladaren deialdia herriko elkartei**

Gazte Asanbladak herriko elkarte guztien artean kolaboraziorako deia zabaldu du, "gune berri honi erabilera zabal eta anitzertar emateko asmoz". Hilaren 15ean, asteazkena, bilera izango da Gaztetxean lokalaren aukerak ez ezik, Gazte-txarean eta elkarten arteko elkarlana ere nolakoa izan daitekeen erabakitzen hasteko asmoarekin. Etortzerik izango ez dutenei aurrez abisua ematea eskatzen zaie.

• **Zazpikiren bilera**

Zazpiki Irratiak bilerarako deia luzatu du bihar, hilak 11, goizeko 12etarako ganbaran. Irratizaletu guztiei dei egiten diete bileran joan daitezen.

• **Pintura dekoratiboa eta hirziklala ikastaroa**

Eskuz Elkartek ikasturte berriari hasiera eman dio unian. Urte osoan zehar altzariak eta bestelako objektuak pintatzeko eta dekoratzeko teknikak lantzeko aukera izango da arratsaldeko 3etatik 5etara bitartean astelehen eta asteazkenetan eta astearte eta ostegunetan. Tailerra Muguruza ikasterxe zaharrean dago. Izena eman nahi izanez gero, ikastetxetik pasatu edo 74 08 01 zenbakira deitu (Mertxe).

• **haropena aheshaliaren bosgarren urteurrena**

Itxaropena abesbatzak bosgarren urteurrena egiten du aurten. Hori dela eta bi kontzertu emango ditu asteburuan. Bata datorren ostiralean, hilak 17, gaueko 21:30etan Plaza Handian. Bigarren kontzertua hilak 18, larunbata, arratsaldeko 8etan izango da leku berean.

| FARMAZIAK  |  |
|--|--|
| Eguez  | Gauetz   |
| <b>11</b>  | <b>Etxeberría Etxeberría</b><br>(Santa Ana kalean) |
| <b>12</b>  | <b>Etxeberría Etxeberría</b><br>(Santa Ana kalean) |
| <b>13</b>  | <b>Bidasolo Escala</b>                             |
| <b>14</b>  | <b>Bidasolo Bidasolo</b>                           |
| <b>15</b>  | <b>Yudego Yudego</b>                               |
| <b>15</b>  | <b>Etxeberría Etxeberría</b><br>(Errosario kalean) |
| <b>17</b>  | <b>Etxeberría Anduaga</b><br>(Santa ana)           |
| <b>ESCALA: Rekalde, 1 Soraluze. Tel: 75 16 38</b>        |  |
| <b>ANDUAGA: Mendarozabal, 1 Garagarza. Tel: 75 61 42</b> |  |
| <b>OKINDEGIA</b>   |  |
| <b>12</b> igandea Foteró                                 |  |

Garaleak **Partikularrak**

- Pista beltzean garaje itxia alokatzen dut.  
74 03 81 / 74 15 01 (gauez)
- Garaje itxia salgai Urasandin  
74 43 52
- Garajea alokatzen da San Roken, Aterpe rabemaren azpian.  
74 33 39.
- Bi garaje alokatzen ditut Santa Ana kalean. 74 05 49 / 74 09 09
- Trenbide kalean garajea salgai. Oso handia da, errulota edo bi kotxe sartzeko beste. Sobrepisoa dauka. 74 01 33

Lana

**\*ESKAINTZAI**

- Neska euskalduna behar dut etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Hohe esperientziaduna. ar 74 12 33 (21:00etatik aurrera).
- Neskaitila bat zaintzeko neska euskalduna behar da.  
74 41 54 (Mertxe. Gauez).
- Taberna traspasatzen da Dehan. Martxan dago eta hezero unak ditu. Orain dela gutxi berritua.  
74 19 54
- Bi pertsona nagusi zaindu eta etxeko lanak egiteko pertsona hat behar da. Goizeko 9etatik arratsaldeko 8etara. te 74 29 30 (arratsaldeko 3etatik 4etara).

**• ESKAERA •**

- Gutxitu Fisikoen Hezitzaile eta Klinika Laguntzaile tituloduna pertsona nagusiak edo haurrak zaindu edo beste lan batzuk egiteko prest. 74 34 68
- Haurrak zaintzeko neska eskaintzen da. Egun osorako. te 74 32 98.
- 29 urteko neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientziarekin. s 19 21 28 (Asun).
- Lokalak, tabernak eta antzekoak garbitzeko emakumea eskaintzen da. 74 18 68
- Pertsona nagusiak zaintzeko emakumea eskaintzen da, esperientziarekin. te 74 04 86 (Victoria)
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko orduka. 74 13 65 (Paquita).
- Neska gaztea eskaintzen da etxebizitzak, portalak, bulegoak eta bestelakoak garbitzeko. Esperientzia daukat.  
74 06 09 (Marisabel).

- Marrazketa tekniko eta diedrikoko klaseak hartuko nituzke euskaraz. tr 74 27 78 (Sara).
- Lizentziatuak fisika eta kimikako klase partikularrak emango tuzke, Maila guztiak.  
74 43 98/74 08 09 (Marian).
- Marrazketa tekniko eta diedrikoko klaseak ematen dira. 74 43 98 (Iftaki)
- Fisika eta matematika klase partikularrak ematen ditut. tr 74 13 34 (Andoni)
- Euskarazko eta Lehen Hezkuntzako partikularrak ematen dira. Talde txikiak.  
74 09 72 (Garikoitz)

Agurrak

- Zorionak Marisabel Iturberi asteazkenean bere urtebetzea izan zelako. Familiaren partez.



• Kaixo fiera: larunbatean zure eguna ospatzekoan hadakizu, ondo pasau, gutxi gastau eta bueltak amari. Denetaz gogorazitezen espero dugu. **ZORIONAK!**



- Zorionak Rosa eta Txarori ren 6an eta 8an urteak hete dituztelako. Karakolen eta Mendaroko bonbolon zai gaude. Bihotz-bihotzez lagun partez.



• Azkenean hete dituzu 3... urte. Edo 4... Zenhat dira? Zorionak Teresita eta musu hat. Jarraitu orain irte hezala, "toda martzosa eta sinpatikona" Ondo pasau Mas-pasa. Zorionak San Pedroku familiaren partez. Zorionak, baita ere, Plaza Tratkoen partez. Kafea noiz?

- Zorionak Zelairi bilaren 7an 13 urte bete zituelako, guraso eta arrebaren partez.



- Oibana Astorkia agurtu nahi dut oso ederra delako. Pascualen partez.




- Zorionak Jabier Agirre-beliari irailaren 27an urteak bete zituelitko. Familia osoaren partez eta muxu haundi bat Mikelen partez.

- Zorionak Jendri hilaren 15ean 6 urte bete dituelako. Guraso eta anaiaren partez. Zorionak, baita ere, Gorka, Maria, Jon Ander eta Rosaren partez. Musu haundi bat.



- Zorionak Joana! Ondo pasau zure 6. urtebetetzean. Igandea denez, kafetxoa astelehenean hartuko dugu, bale! Ondo pasau preziosa. Dorleta eta Iker.



- Zorionak Joana Rodriguez. Musu haundi bat guraso eta pa Itxasoren partez. Super zorionak aitxita Jose Mari eta osaba Olu eta Titoren partez.



- Zorionak Lideri hilaren 11n 3 urte bete dituelako. Alberto, Ana, Nurria eta Iiigoren partez.



- Zorionak Luis Cid eta M.Tere Zabalori joan den asteartean rrezko eztaiak ospatu zituztelako. Familiaren partez.



- Zorionak Maite Posligori hihar, hilak 11, 1 () urte bete dituelako. Familia osoaren partez egun alai bat igaru dezala.

- Zorionak Norari hilaren 11 n udebete bete dituelako. Familia osoaren partez



- Zorionak Adelaidari hilaren 14an 70 urte bete dituelako. Bere senar, seme eta iloben partez.



- Zorionak Arriola Lobeteri hilaren 17an urte bete dituelako. Familia osoaren partez.



- Zorionak Ai.

- Zorionak Ai. tor Murua Perezuri hilaren 12an 3 urte bete dituelako. Etxeko guztien partez. Bereziki hiru tirakada haundi bere anai



- Zorionak Asierren partez.
- Zorionak Amaia Loiolari astelehenean, hilak 13, 2 urte bete dituelako. Guraso eta




- Zorionak Andrea Zubiaurreri hilaren 13an 10 urte bete dituelako. Fami-



- Zorionak Unairen partez,
- Bikentzi Urkidid zorionak atzo, osteguna, 14 urte bete zituelako. Etxeko



- Zorionak Eli Horeasi zorionak eta muxu




- Zorionak Alguacili gaur 9 urte bete dituelako. Berandu, baina ez gara altaztu. Familia osoaren partez. Kontuz gatzmasekin!
- Zorionak Itsaso Alguacili gaur 9 urte bete dituelako. Ikas Izurde taldearen partez. Zorionak, baita ere, lau neska politen partez.





# LEKU-EDER ETXEBIZITZAK


LOKAL KOMERTZIALAK eta GARAJEAK *c14104/*



- Etxebizitza bakarra, ganbararekin
- Etxe osoak kanpora ematen du, eguzkitsua
- Material bikainekin amaitua
- Gasezko berogailua eta ur bero indibiduala
- Ordainketa-era hitzegitekotan

*a* OPgAgORAW<sup>,11</sup>

Informazioa eta salmenta 20 83 16



**PASATZEN DEN MINUM BAKOITZEKO,  
JULATZEKO MINUTU BAT GURIAGO  
GERATZEN 1A1111,**

**Asegura ezazu  
zure etorkizuna  
Mapfre Vidarekin.  
Jubilazio eta pentsioetan  
enpresa liderra.**



**MAPFRE**

San Frantzisko, 40 behea  
Tel: 74 05 82/ 74 14 04 Faxa: 74 17 07



# Modak Ferpi Dekorazioa



Ildazken eta neguko moda berria  
Anteline o koichzioen "boomna  
Zatoz larunbat arratsaldetan  
eta opari bat josolio duzu



San Bartolome, 38 Tel: 74 08 15



- Mantelak
- Izara eto toailak brodatzen ditugu
- Gortinak neurrira egin eta jartzen ditugu (Eskatu ourrekontuo)
- Sofarako fundo elastikook

- Nordiko =?) tik
- Edredoi tik
- Toaila j i1911,1 toa.tik



San Bartotorne, 2S Tek 74 43 5